

## Oihartzuna

—Zer da oihartzuna? —galdetu zuen ikasleak.

—Oihartzuna, soinuaren berezko errepika da —erantzun zuen euskara irakasleak.

Ez genuen ulertu eta aho-zabalik geratu ginen.

Gure irakaslea oso pertsona zuzena zen, ondo sinetsia zuen hizkuntza ez dela beste baten itzulpena eta edozein hizkuntza ikasten ari den ikasleak baliabide propioetan oinarritu behar duela.

Ez zuen itzulpena eman nahi. Bere metodo pedagogikoaren aldetik, modernoa eta ortodoxoa zen aldi berean.

—Erdaraz ez —agindu zuen.

Orduan keinuka hasi zen, hatzaren punta aho irekian ipintzen zuen eta gero hatz hori aurrerantz botatzen zuen, besoa luzatuz, eta gero eskua belarrira ekartzen zuen.

—Mihiluzea —esan zuen ikasle batek.

—Ez, mihiluzea ez —esan zuen gure irakasleak.

Berriro hasi zen keinuka. Keinu haiek hainbat ideia desberdin iradoki zizkidan: estrategia, indioa, abisua, gormutua, arrantza kanaberarekin, tximinoa...

Ez nintzen ezer esaten ausartu. Aho-zabalik geratu ginen denak.

—Bistan dago ez naizela espresio korporalean oso ona —esan zuen irakasleak—. Harpe batera sartu eta oihu egiten baduzu berehala entzuten da...

—Saguzarra—esan zuen batek.

—Baina ze saguzar!—esan zuen irakasleak—. Ea hemen oihartzunik dagoen...

Ikastetxe handi zahar batean geunden, leihoek patio estu batera ematen zuten, eta igeltsero bat ari zen han behean lanean.

Klak klak klak entzuten zen.

—Euskaraz egiten ez dakit inoiz ikasiko duzuen—, esan zigun irakasleak etsita—, baina hitz bat behintzat ikasi behar duzue gaur...

Liburua mahai gainean utzi eta irakaslea leihora hurbildu zen, eztarria hum hum garbitu zuen, hum hum hum...

—Deiadar egingo dut eta ondoren entzungo duzuen da oihartzuna—, esan zuen—. Oraintxe jakingo duzue zer den oihartzuna...

Eskuak ahoaren alboetan erdi borobildu zituen. Eta itzelezko oihua egin zuen:

—Oihaaartzuunnnaaa!

Berehala entzun zen behetik igeltseroaren erantzuna:

—Tu puuuta maadreee!

Joseba Sarrionaindia